

OHARRA- UNIBERTSITATE-GHEE BATZORDEA

Nota- Comisión Universidades- CEESPV

Kaixo Elkargokide!

Elkargoaren eta Unibertsitate-arteko Batzordeak bilera berri batekin hasi du ikasturtea, irailaren 4an. Bilera horretan, beti bezala, hainbat gairen inguruan lan egin dugu:

- Gizarte-hezitzaileen profilaren jarraipenarekin lotuta, bilera bat eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu berriari (aurreko legegintzaldian garatu ezin izan zena). Bilera horren helburua gure lanbidearen egoera azaltzea da, batez ere gizarte-zerbitzuetako sisteman, lizitazio publikoetan suertatzen den egoera. Bertan, gizarte-hezkuntzako lana egiteko profil ugari sartzen dira, baita unibertsitateaz kanpokoak ere, eta horretarako irtenbide bateratu bat bilatu behar dugu.
- Titulazioen Liburu Zuriak berrikusteko prozesuak aurrera jarraitzen du, gizarte-hezkuntzarako liburu propio bat sortuz. Estatuko unibertsitate eta elkargo guztiek parte hartzeko hainbat bide planteatu dira.
- EHUren "Unibertsitatea- Enpresa- Gizartea 2024" deialdira aurkeztutako "EAEko Gizarte Hezkuntzaren lanbide-errealitatearen azterketa" ikerketa-proposamenari dagokionez, hura ebatzi zain gaude. Ikerketa honen baitan, "Euskadiko gizarte-hezkuntzaren esparruetara hurbilketa" bat egin da, aurrekoetan esan dizuegun bezala. Hurbilketa hori euskarara itzuli da jada, eta dokumentu praktiko komuna izan nahi du unibertsitateentzat eta elkargoarentzat, eta epe laburrean horren berri partekatzea espero dugu.
- Gizarte Hezkuntzaren Nazioarteko Egunari tarte bat eskaini zaio. Urriaren 2an izango da, dakizuenez, eta lurralde bakoitzean aurreikusitako ideiak eta jarduerak partekatuko dira.

Hauxe dena momentuz, ondo bizi!

La **Comisión del Colegio e Interuniversitaria** ha comenzado el curso con una nueva reunión el 4 de septiembre donde como siempre hemos trabajado en torno a diferentes temas:

- Relacionado con el seguimiento del perfil de los educadores/as sociales, se solicitará a la nueva consejera del departamento de educación del Gobierno Vasco una reunión (que no se pudo desarrollar en la anterior legislatura) cuyo objetivo es explicar la situación de nuestra profesión fundamentalmente en el sistema de servicios sociales en las licitaciones públicas, donde para desarrollar la labor de educación social se incluyen numerosos perfiles, incluso no universitarios y para la cual necesitamos buscar una solución conjunta.
- El proceso de revisión de los Libros Blancos de las titulaciones sigue adelante con la creación de un libro propio para la educación social. Se han planteado diferentes vías de participación para todas las universidades y colegios del estado.
- Respecto a la propuesta de investigación "Análisis de la realidad profesional de la Educación Social en la CAV" presentada a la convocatoria EHU-UPV "*Universidad-Empresa-Sociedad 2024*", se está a la espera de su resolución. En el marco de esta investigación se ha elaborado como ya os hemos comentado en anteriores ocasiones una "Aproximación a los ámbitos de la educación social en Euskadi" que ya se ha traducido al euskara y que pretende ser un documento práctico común para las universidades y el colegio del que esperamos a corto plazo poder compartir.
- Se ha dedicado un espacio al Día Internacional de la Educación Social que será como sabéis el próximo 2 de octubre, compartiendo las diferentes ideas y actividades previstas en cada territorio.

Besarkada haundia eta ondo segi

Unibertsitate- GHEE Batzordea